



<b>Ekipoa</b>	<b>Hutseko eguzki-kolektore termikoa ura berotzeko</b>
<b>Kodea</b>	D-4019
<b>Ingurumen-hobekuntza</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Energia aurreztea eta energia-efizientzia.</li> <li>- Soinu-emisioak murriztea.</li> <li>- Klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzea.</li> </ul>
<b>Deskribapena</b>	<p>Hutseko eguzki-kolektore termikoa eguzki-teknologia efizienteenetakoa bat da, baina, aldi berean, garestienetako bat. Kolektore horiek klima hotz edo oso hotzetan instalatzen dira, tutuaren hutsuneak eroapenaren eta konbekzioaren bidez galdutako beroa minimizatzen baitu. Beraz, klimatologiak eraginik izan gabe (eguzki-erradiazioa, haizea, euria, hotza...) lortzen duen efizientzia da sistema horren abantaila nagusienetakoa bat. 50 eta 95 °C arteko aplikazioetan erabiltzen da, eta kasu batzuetan, 160 °C-ra ere irits daiteke, kokalekuaren arabera.</p> <p>Kolektore mota horietan, xurgatzeko lamina beirazko hodi baten barrualdean jartzen da, eta hodi hori hutsean ezartzen da. Lanerako jariakina xurgatze-laminarekin kontaktuan egoten da etengabe, U formako hodi baten bidez. Azken kolektorean, hainbat hodi elkarrekin lotzen dira.</p> <p>Horrelako kolektoreetan egiteko bi modu daude. Batetik, zirkulazio zuzenekoa da. Bertan, jariakin bakarrarekin lan egiten da, eta hodian arteko konexioa mahuken bidez egiten da. Bestetik, tarteko jariakin bat sartzen da, hodian lurruntzen dena, eta kondentsatu egiten dena trukatzailean urarekin kontaktuan jartzen denean. Besteak beste, kokalekuko klimatologiaren baitan dago lan egiteko modu bat ala bestea aukeratzea.</p> <p>Teknologia horren abantaila nagusienetakoa da kolektoreak horizontalki jar daitezkeela eraginkortasunik galdu gabe. Nahikoa da hodiak beren ardatzen gainean biratzea, makurdura-angelu egokia lortzeko.</p> <p>Hutseko eguzki-kolektore termikoek eta kolektore lauek antzeko erabilerak dituzte: eraikinak berotzea eta ur bero sanitarioa, igerilekuak klimatizatzea, eta ura orohar berotzea. Horrek guztiak dakar gas natural gutxiago kontsumitzea. Teknologia horren efizientzia eta ur oso beroz hornitzeko gaitasuna direla-eta, xurgatzearen bidez hozteko sistemekin batera erabil daiteke (adibidez: hozteko zikloak, eraikinen klimatizazioa, eta lurruna edo ur beroa behar duten industria-prozesuak).</p>
<b>Zein sektoretan aplikatu daitekeen eta erabilerak</b>	<p>ETE-en mailan lehen mailako sektoretan eta industria zerbitzuetan erabili daiteke. Zehazki, honako hauek dira erabilera nagusiak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>- Igerilekuen berokuntza.</li> </ul>



- |  |  |
|--|--|
|  | <ul style="list-style-type: none"><li>- Berotegietarako ur beroa.</li><li>- Temperatura baxuko industria-prozesuak.</li><li>- Ur bero sanitarioa udal-instalazioetarako, adibidez, kiroldegiak, kultur-etxeak, etab.</li><li>- Ur bero sanitarioa ikastetxeetarako, unibertsitateetarako.</li><li>- Orokorrean, ura berotzeko. Sektore guztietan aplikatu daiteke.</li></ul> |
|--|--|